

Madalenak sentitzeko 140 modu

Asteartean hasiko dira 2026ko
Madalen Jaiak. Hilaren
21etik 25erako tartean 140
jarduera daude jasota festen
egitarauaren barruan · 17-29

OSTIRALA, 2026ko UZTAILAREN 17a

**Madalenak
2026**

ERRETERIA-ORERETA

• OARSO BIDASOKO •

HITZA



Gora madalenak!
Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA



943 634 536



www.goieko.com



Bost egun eta 140 ekitaldi, herria egiten segitzeko

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

I lusioa da osagai nagusia. Hori oinarrian jarrita eraiki du jai egitaraua, oparoa eta publiko guztiei begirakoa aurtan ere Madalenetako Jai Batzordeak. Helburu behinena, herritik eta herriarentzat jaiak egitea, berdinzaleak, inklusiboak, bazterrean inor utziko ez dutenak; eta aurtan ere bete dute, bikain bete gainera.

Atzerako kontaketa betean, dena

prest dago udalerrria lau egun barru festan murgil dadin. Bost festa egun, hilaren 21ean hasi eta 25ean buka, eta 140 ekintzatik gora; bada zerbait: erakusketak, antzerkiak, kirol jarduerak, danborradak, dantza, lehiaketa eta dastaketa gastronomikoak, besteak beste. Horietatik guztietatik, 55 izango dira musika emanaldiak, «publiko eta gustu ezberdinei zuzenduta». Aurrerapen gisa entzun ahalko direnetako batzuk: Anari, Putas Amak, Skabidean edota La Fulana. Horiek batzuk baino ez.

Une bereziena txupinazoarena da, ez da horretan zalantzarik. Aspaldian, baina, une handi hori egokitu eta denei begirako hiru txupinazo egiten dira madalenetan. Guztietan lehena, Mila Koloretako Txupinazo Txikia izango da. 17:15ean abiatuko da Batuburrumba Zumarditik Koldo Mitxelena plazara heltzeko, eta bertan egingo du eztanda txikien txupinak 18:00etan puntuan.

Gazteei begirako Holy Txupinazoa eta txupinazo nagusia berri, 19:00etan; Gernika plazan lehena, eta Herriko Plazan bigarrena. EMKEren Musika Banda protagonista izango da berriro eta oilo-larrua jarriko dio bertaratzen direnetako asko-askori, hunkitzeraino *txunpa txunpa txunpa* abestu eta dantzatzan duten bitartean. Aurtengo protagonista handia, txupina piztuko duena, madalenetako omen-dua: Luis Mari Moreno Urretabizkaia *Pirata*; eskarmentu handia du agertokietan, baina bere herriko jaietako hasiera emateko ardura eta ohorea betiketuko duen zalantzarik ez da.

Eta harekin batera, protagonista nagusia: herria. Haur, heldu, gazte... herri bat festara emanda.

Herritarrei eskaera egin die Aizpea Otaegi alkateak jaietako egitarauaren aurkezpena egiteko agerraldian: «Izan dadila gure herria eredu garri». Festak aniztasunean eta berdintasunean bizi daitezela: «Erakutsi diezaiozun elkarri maitasuna eta errespetua, babes deza gun elkar eta konprometitu gaitezen guztiontzat askeak eta berdinzaleak izango diren festekin». Bide beretik mintzatu da jai batzordea.



MILA
ileapaindegia

Gora madalenak! Ongi pasa!

☎ 623 19 19 37

📍 Madalen kalea, 7. Erretereria-Orereta



ORERETA

Oreretako jaiak!
Aupa zuek!

taberna

Gamon Zumardia • Tel.: 943 522 862 • ORERETA



orereta ikastola
AURRERA!

**ATERA KALERA,
KALE EGIN GABE!
GORA MADALENAK!**

IKASTOLAK

erriola
gunea

IKASTOLA EREKIA
IKASTOLA EREKIA

www.oreretaikastola.eus

Jai hasiera lasaiago bizi nahi dutenek Zumardiko pantaila erraldoia izango dute, eta herritik kanpo daudenek, berriz, streaming bidez jarraitu ahal-ko dute herribizia.errenteria.eus web orrian.

Piratarari ere aipamena Otaegik, zoriondu egin du eta herriko kulturarekin eta jaiekin duen lotura estua nabarmen jarri du udal agintariak, baita belaunaldi ezberdinentzako musikaren erreferente izatea eta urte hauetan guztietan herriarekiko erakutsi duen konpromisoa ere, «herriaren maitasuna jasoko du bueltan».

Jai batzordea, ezinbestekoa

Barrutik mintzatu da alkatea, eta madalenak «herri gisa garena ospatzeko eta gure arteko harremanak estutzeko urteko egunik garrantzitsuenak» direla adierazi du. Egun horiek herri-
tar guztien gozamenarako antolatzen badira ere, atzean hilabeteetako lana dagoela jarri du nabarmen, eta ildo horretan, madalenak posible egiten



Plaza lepo izango da asteartean, txupina jaurti zain. I. Zarate Gartziaarena

dituzten pertsona eta eragile guztien lana balioan jarri du Otaegik. Bereziki, Madalenetako Jai Batzordeko kideei, Haurren Jai Batzordeari, Udal Eskola Kontseilu Gazteari eta jaiak antolatzen eta aberasten parte hartzen duten herritar guztiei eskerrak eman dizkie, «haien inplikaziorik gabe madalenak

ez lirakeelako gaur egun direnak izango».

Elkarlanaren lehen topagunea, hilaren 21ean 14:00etan izango da jaiak hasi baino ordu batzuk lehenago, Herriko Plazan egingo duten herri bazkaria, «jaiari hasiera kolektiboa emateko aukera eskainiko du». ■

DEIKA

GEST

HASIERAKO LANBIDE HEZIKETA

HASIERAKO LANBIDE HEZIKETA
DBHko Graduatua

MEKANIKA

AROSZTEGIA

ZURGINTZA - ALTZARIGINTZA
FABRIKAZIO MEKANIKOA

labur.eus/DEIKAgest

Alaberga auzoa, 38 B. Errenteria-Orereta
info@fpberrenteria.eus - Tel.: 943 52 95 33

Nagore Cabada

HORTZ KLINIKA

Gozatu madalenetan!
Egin irribarre!

Santa Klara plaza, 2. 20100 Errenteria.
Tel.: 943 017 876. klinikanc@gmail.com

<< Familia eta lagunekin elkartzeko unea dira madalenak >>

LUIS MARI MORENO 'PIRATA' OMENDUA

Musikari eta bere herriari ekarpen itzela egin dio, baita egiten jarraitu ere, Piratak. Ekarpen handi horren ordaina, edo zati bat bederen, jasoko du aurtengo jaien txupina piztean.

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Oraindik ere ez omen da mentalizatu, baina eskertuta azaldu da jaietako omen-dua izateko aukeratu izanagatik. Luis Mari Moreno *Pirata*-k piztuko du jaien hasierako txupina, eta musikariarekin izan da HITZA. **Udalerrriarekin duzun inplikazioa erabatekoa da, baina aurtengo madalenak ahaztezinak izango dira zuretzat. Nola biziko duzu uztailaren 21a?**

Oraindik ere ez dakit, ez naiz oraindik horretara jarri. Pentsatzen dut oso hunkigarria izan behar duela Herriko Plazaren gainean egotea, ez dut inoiz bizi izan txupinazoa udaletxeko balkoitik. Ama bai egon zen behin aitona-ekin, 1960ko hamarraldiaz ari naiz, baina ez du zerikusirik gaur egungoarekin. Pentsatzen dut izugarria izango dela.

Omendua izan den bateren batekin izan naiz hitz egiten, eta pasada bat dela esan didate. Gustura nago.

Aitortza ofiziala jaiak hasi bezperan egingo dizute, txistularien kontzertuarekin batera, leporaino beteko den Zumardian. Nola irudikatzen duzu une hori?

Ikaragarria izan behar du, baina aipatu dudan moduan, oraindik ez naiz jarri horretara, ez naiz mentalizatu. Herrian halako omenaldia jasotzea ikaragarria da, are gehiago niretzat, langile bat naiz-eta. Kontua da nire lana jende guztiak ikusten duela, agerikoagoa dela, baina langile bat naiz, nire lana da egiten dudana. Gainera, orain arte

www.oarsoak.com
Beerlagun

UGALDETXXO INDUSTRIAGUNEA - ZUAZNABAR KALEA 137. OIARTZUN
TEL. 943 49 01 62. beerlagun@beerlagun.com



IKUSI MAKUSI

Zure opari denda

Jostailu hezitzaileak

Punta-puntako markak

Kalitatezko jostailuak

Tel.: 943 52 88 53. Alfonso XI kalea, 3. Lokala. Errenteria - Orereta

CIFP DON BOSCO LHII



DON BOSCO ALDEA LAN HIRIA

20100 Errenteria

Tel.: 943 510 450

donbosco@donbosco.eus

www.donbosco.eus

PAPER KALEA, 1

20400 Tolosa

Tel.: 943 672 900



Lanbide heziketa baino askoz gehiago





Imanol Saiz Gomez de Segura

omenaldia beti eragileei egin zaie, EM-KEren banda, baserritarrak... Ni pertsona bat naiz. Egia da herriaren izena nirekin eramaten dudala joaten naizen leku orotara. Askok galdetzen didate «nongoa zara. Donostiakoa?»; berehala esaten dut ezetz, Errenteriakoa naizela. Nire jatorria argi adierazten dut beti.

Gogoan duzu aurtengo madalenetako omendua izango zinela jakinarazi zizuten unea. Nolakoa izan zen?

Erosketa egiten ari nintzela jo zuen telefonoak, Aizpea Otaegi alkateak deitu ninduen esateko, eta zur eta lur gelditu nintzen, beti eragileei, elkarteei egin dietelako aitortza, eta ni pertsona bat naiz. Ez dut uste, gainera, ezer berezirik egin dudarik aitortza hori jasotzeko. Alkateak azaldu zidan nola erabakitzen den omenduaren izendapena, nirekin kontsentsua izan zela, eta zer esango dut bada, eskertua nagoela oso.

Txupinazo garbi baten alde udalak egin duen bideoan parte hartu duzu.

Bideoa oso grazioso da, bide batez. Pixka bat zikina iruditzen zait irina,



samar
ADMINISTRAZIOAK

Biteri 45, behea. Errenteria-Orereta
943 50 32 24 - 688 71 43 14
samar.admon@gmail.com



FISIOTERAPIA

📍 Foru Plaza 19, Errenteria 📞 603 108 997
✉ ondufisioterapia@gmail.com
🌐 www.ondufisioterapia.com 📷 @ondufisioterapia



grupo asegi



JAKIN S.L

**AHOLKULARITZA - ASEGURUAK
ERA GUZTIETAKO GESTIOAK**

Morrongilleta 11-13. Errenteria - Orereta. Tel.: 943 51 96 88 - 943 52 75 32

ketchupa eta arrautzena. Baina onartu behar dut bakoitzak nahi duen moduan ospatzeko eskubidea duela. Ez da bakarrik zikina izatea, labainkor gelditzen da zorua, masa egiten duelako botatzen duten horrek guztiak eta urte batean kristoren kolpea hartu nuen erorikoa izanda. Egia da garbiketa zerbitzukoek berehala garbitzen dutela, baina lokatz modukoa gelditzen da. Azkenean esan dudana errepikatu dut, bakoitzak bizi eta nahi duen moduan ospatzeko eskubidea du. Nik, pertsonalki, nahiago dut txupinazo garbia, batez ere suposatzen duen arriskuarengatik, eta ekarpenik ez duelako egiten.

Beste aukera bat da euren burua zikindu nahi dutenentzat gune bat sortzea, Gasteizen bere garaian egiten zuten bezala, zikinen gunea sortu zuten. Nik garbiaren alde egiten dut, zalantzarik gabe.

Herritarrek erabaki dute zu izatea omendua. Zer balio du horrek zuretzat?

Gustukoa zait, baina lehen esan du-

dan moduan ez dakit zergatik, egiten dudana bakarra lan egitea delako eta herriaren izena nirekin eraman ahal dudana guztietan. Kulturalki eta musikalki herri aberatsa da Erreterria, beti izan da: banda, abesbatzak, rock talde mordoa... Erreferentea da. Gogoan dut behin Miguel Riosekin hizketan nintzela esan zidala hizkeragatik ez nintzela *hangoa*; erreterriarra nintzela esan nion. Orduan kontatu zidan 1972. urtean Cerebros izena zuen areto batean aritu zela jotzen, Musika Plazan zegoen areto hori. Nino Bravok, autoarekin istripuan hil aurretik, azken *boloa* Penny Lane dantzalekuan egin zuen, hemen, herrian [1973ko martxoan izan zen hori].

Kontu oso bitxiak ditu gure herriak, erakusten dutenak ikaragarri aberatsa izan dela beti kultura eta musika arloan.

Zer dute berezia madalenek?

Familia eta lagunekin elkartzeko unea dira jaiak eta horrek egiten ditu berezi. Uztailaren 21etik 25era herrian izatea,



«Kulturalki eta musikalki herri aberatsa da Erreterria, beti izan da; erreferentea da»

«Gozatu, errespetua denaren gainetik jarrita. Lekua dago sentsibiltate ororentzat»

kalean uneoro gauzak egiten noski. *Gauzak egiten* nire kasuan musika jotzen esan nahi du. Iraultza fanfarrea-rekin 1987an hasi nintzenetik horretan jarraitzen dut, Kulixka txaranga, Incansables, Urrats taldearekin berbenak jotzen, musika bandarekin, Blues Thorpes, Los Del Gas... Musikarekin lotuta egin dugun oro herrira ekarri dugu bai De Cyne Reynara, gure zentralita izan dena, baita edozein plazara ere.

Musika banda aipatu duzu, bertan aritzen al zara txupinazo egunean Zentenarioa jotzen?

Pandemiaz geroztik esango nuke ez dudala musika bandarekin jo, baina niretzat oso garrantzitsua da. Herriko musikarien helburua bertara heltzea zen musika ikasle nintzenean. Kuartelilloa zenean zegoen garai hartan musika eskola, Erreterria Musikal ez zen oraindik existitzen ere.

**OIHALAK
ARTILEAK
IKASTAROAK**

GOZATU MADALENAK!
 Nafarroa hiribidea. 28
 ERRETERIA-ORERETA
 tel.: 843 67 17 34
 @blazmo_wool

KABALA
 etxe - animalientzako pentsu eta osagarriak
 943 53 57 51 / 605 76 52 14
 Erdiko kalea 16. Erreterria. kabaladenda@gmail.com

**GORA
MADALENAK!**

GORA MADALENAK!

egiluze

ikastetxea



Jai ei hasiera eman eta bukaera ere jarriko diezu, musika bandarekin batera Zumardiko emanaldian ariko baitzara 25eko kontzertuan. Berezia al da kontzertu hori?

Abesti modernoagoen erreperitorioarekin 2015ean hasi ginela esango nuke, eta egia esan zoragarria da. Horren aurretik jendea *Zentenarioa* entzun eta zezen suzkoa ikustera joate zen, baina proposamena aldatu zenean jende mordera bertaratzeko hasi zen. Jaiak herriarenak dira eta parte hartzaileak izan behar dute, jendea abesten aritzen da, doinu ezagunak jotzen ditugu, eta dantzari jartzen dugu bertaratzeko den oro.

Zer ez duzu galtzen madalenetan?

Lo orduak [barre]. Kanean nago uneoro, eta inoiz ez naiz damu izan, merezi du. *Zentenarioa* jakina; bandaren kontzertua 22ko eguerdian; Alaberga eta Telleriko danborradak; haurren danborradak... pasada bat da hainbat haur musikari emanak ikustea. Zumardiko kontzertuak edota Foru plazako berbe-

nak ere oso gustuko ditut... Hainbeste osagai dituzte madalenek, eta hain gustukoak ditut denak, ezinezkoa dela bakarria aukeratzea.

Txupinazo aurretik sorpresarik eman-go al duzu?

Bai, bertsoa abestuko dut, aurrekoek hala egin dute eta nik ere egingo dut, oso tradizio polita iruditzen zait.

Zein proiektu dituzu oraintxe esku artean?

Rockalean taldeaz gain, musika mexikar taldea sortu dugu. Azken horretan iloba dut abeslari, ahots izugarria du eta ez diot hori iloba delako, ikaragarri ondo abesten duelako baizik. Madril-en da ikasketak egiten baina bera ere erreteriarra da. Bi horietaz aparte, aste honetan ere Orquesta Mondragon taldearekin aritu naiz emanaldi batean; 50. urteurrena bete du taldeak eta haizezkoetan aritzeko deitu zidan Javierrek [Gurrutxaga].

Orquesta Mondragon oso lotuta dago, gainera, gure herriarekin; taldeak izan zuen lehen haizezko sekzioa ber-

takoa zelako, musika bandakoa. Javierrek [Gurrutxaga] esan zidan Errenteriariko Zumardian egin zuela kontzertua Caligula taldearekin kiosko zaharra zegoenean, eta Orquesta Mondragonekin, berriz, hainbatetan aritu da herrian.

ETB1n ere ari zara lanean.

Gaupasa saioan. Aurkezleak, Julen Telleriak, kristoren rolloa dauka eta oso nabaria da irratitik datorrela. Han ez duzu irudiaren gehigarria eta berak oso ondo eramaten du haria elkarrizketatuekin. Kolaboratzaile sare bikaina dago gainera, Jon Plazaola, Aitziber Garmendia... Oso gustura nago, eta gainera, etxetik gertu.

Ekitaldi ofizialetan bai, baina horietatik kanpo non ibiliko da Pirata madalenetan?

De Cyne Reynan seguru, eta herrian.

Mezua herriarrei?

Jaietan gozatu, eta gozatzen utzi, errespetua denaren gainetik jarrita. Lekua dago sentsibiltate ororentzat. Zerbait egin aurretik pentsa dezagun hori guri egitea gustatuko ote litzaigukeen. ■

iparaseguroak@iparaseguroak.com



IPAR
ASEGURAK

Nafarroa etorbidea, 75 - behe Erreterria. Tel.: 943 34 11 27



CORAZONISTAS
TELLERI-ALDE

GORA BIHOTZAK!
GORA MADALENAK!



Bittor Idiazabal 1, 20100 Erreterria | 943 51 12 33 | tellerialde.com



Prana
Eskuz epindako terapiak



Kriston
masaje
onak!

Hitzordua hartzeko: www.masajeakerreterria.net 690 291 383

Festazaleak bizkortzearen arduradun izango dira

**Bixkor txarangak
girotuko ditu hilaren
22 eta 23ko dianak.
Gazte-gazteak dira
taldekideak, ia denak
errenteriarak. Ilusio
berezia egiten die
herriko festen zati
goiztiar izatea.**

URKO ETXEBESTE PETIRENA

O rereta Ikastolak 2023an antolatatu zuen Kilometroak jaiak asko eman zion Errenteria-Oreretari. Tartean, txaranga bat. Izan ere, Bixkor txarangaren ernamuina orduko da: lagun talde bati urte hartako urriko lehen egun hura girotzeko «zerbait» prestatzeko eskatu zioten antolatzaileek, «musika instrumenturen bat jotzen zekien ia edonor atera zen talde edo txaranga hartan. Hura egin, eta gehiagotan erre-



pikatu behar zela pentsatu genuen...». Esan eta egin. Serio jarri, Bixkor txaranga sortu, eta 2024ko Gaztañoko festetan egin zuten debuta. Bi urte bete berri dituzte, beraz.

Hilaren 22ko eta 23ko dianatan izango da Bixkor gaua bikain bukatu nahi dutenen buru. 06:00etan hasiko dira *Errenteriako diana* jotzen. Ehunka festazale izango dituzte alboan. «Lehengo astean, adibidez, Iruñean egon ginen. Toki askotan izan gara bi urte hauetan. Abentura batzuk egin ditugu jada» [barrez]. Baina herrian aritzea arras berezia da txaranga osatzen duten dozena bat musikarientzat. Aritz Otaegi eta Oier Bonail taldekideekin izan da HITZA; «gehienak Errenteriakoak gara, bertako musika eskolan ikasitakoak. Lezoko, Hondarribiko eta Donostiako kideren bat ere badugu. Baina beste denak herrikoak gara». Beraz, dianak girotu baino, biziko dituzte.



Xenpelar kalea 2, behea. Errenteria - Tel.: 943 052 115 - info@consultoriabb.com

••• Begoña Braz Hernández
Notaritzako ofizial ohia
••• Nieves Braz Hernández
Abokatua



jaiak
disfrutatu!

Esther Sagasti Orodea
Ana Elizondo Iriarte
Barne Diseinua

Santxoenea 31. Errenteria. 679 70 39 44 - 605 76 53 16
www.sagastielizondodecoracion.com

**TATTOO
PIERCING**



Tatuajeak laserrarekin kentzen ditugu!
ongi pasa madalenak!


665 72 24 65
Madalen kalea, 3. Orereta

Oiartzo
etorkizunerako bidelagun

**Gora Madalenak
Eta biba zuek,
gazteak!**

IKASTOLAK

www.oiartzoikastola.eus



KALIMA
arropa eta osagarriak

@kalima_errenteria

Biteri, 25. Errenteria-Orereta. Tel.: 943510372



Bixkorrekoak, Oiartzunen egin zuten saio baten ondoren. Bixkor

kanpotik, nola ez. Baina horren zati izatea sekulakoa da; bengalak pizten dituztenean bero-bero jartzen da dena...»

Bi kideek aitortu dute dianatara txarangakide gehienak ohea ukitu gabe joango direla jotzera, «gogorragoa izango litzateke altxatzea, gau osoan hortik gozatzen ibiltzea baino», barrez. *Errenteriako diana*-ren lehenengo notak jo, eta jendea saltoka eta algaraka hasten da. «Ordainezina da une hori».

Kanta klasikoak, eta berriak

Dianaz gain, madalenetan beste ekitaldiren batean ere izango da Bixkor, tartean Madalen Egunekeo haurren dantborradan. Gainera, txarangako hainbat kide Errenteriako Musika Kultur Elkarteko (EMKE) bandaren partaide dira, eta adibidez, hilaren 22ko eguerdiko kontzertuan (21eko txupinazoan

ere izango dira) jotzen ariko dira. Hau da, gazte izan arren, eskarmentuko eta eskolako musikariak dira.

Errepertorio zabala dute. Txarangen unibertsoan klasikoak diren kantak zabaldu bai, baina garaian-garaian ospea duten era guztietakoak ere dituzte *setlist*-ean. «Adibidez, Iruñean, Quevedo abeslariaren *La graciosa*-k jarraipen iskanbilatsua izan zuen. Iaz, *La Morocha*-k asko funtzionatu zigun. Baina abesti klasikoek beti dute harrera ona. Gazte edo heldu, denen hankak mugiarazten dituzte betiko abesti horiek». Kide guztiak *bolo* guztietan izatea zaila dela adierazi dute Otaegik eta Bonailek, eta tarteka «fitxaketaren bat» egiten dute taldeak oreka musikala gal ez dezan. Batez ere, herri txikitako festetan pasatzen dute hoberen euren doinuak zabaltzen, baina azaldu dute Donostiako Alde Zaharrean jotzea euren ametsetakoa dela, izan San Sebastian Egunean, edo beste festaren batean, «kale estuak dira hangoak. Gozamina litzateke han jotzea». ■

Iazko madalenetan jo zuten lehenengoz sorterriko dlanan. «Sekulakoa da. Lagun artean jotzea izugarria da eta ilusio handia egiten digu». Gazte-gazteak dira bixkortarrak, 17-21 adin tartean dabilta denak, beraz, duela ez asko dianaren *beste aldean* zireneta-koak dira. «Oso polita da hor barruan jotzen egotea. Ikusi izan dugu diana

LEKU ZAHARRA

ONDO PASA FESTAK!

943 516 441
MADALEN KALEA 3
20100 ERRENTERIA-ORERETA

Gora madalenak!

PINTXOAK - RAZIOAK - OGITARTEKOAK

Gamon Zumardia, 12 Errenteria • 943 55 86 25

- Haur eta helduentzat Terapia Estrategiko Laburra
- Banakako, bikote eta familia terapia

JAKOBE PSIKOTERAPIA

620.12.24.29

Jakobe Batanero Alvarez
Psikologoa GZ 1579
Xenpelar kalea 6, solairuartera,
5. bulegoa. Errenteria
www.jakobepsikoterapia.com

1986

ATERPE

HIGIEZIN AGENTZIA

Gozatu madalenak!

- Alokairuak eta Salmentak
- Bermea + Segurtasuna
- Aterpe Agentzia beti irtenbideak proposatzen

Tel.: 943 52 36 94
www.aterpe.com

Denoï

EDERGINTZA PRODUKTUAK

943 21 44 11

Biteri kalea 13 | 20100 Errenteria

@exclusivasdenoi



Kontzertua aurkezteko agerraldia joan den astean. I.Z.G

Madalenen atariko txistu doinu gorenak



albaisu
fisioterapia

Olatz Oliveri Vesga

- Fisioterapia orokorreko min eta lesioak •
- Osteopatia funtzionala •
- Erditzerako prestaketa •
- Zoru pelbikoko tratamenduak eta erditze osteko lanketa •

Santxo enea 11, Erretereria. Tel.: 640 20 10 77

Ondo pasa



madalenak!

**JAIETARAKO JANTZIAK:
ZAPIAK, TXAPELAK, GERRIKOAK...**

Foru plaza, 21 . 943 511 887 . Erretereria

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Artistak aukeratu, haiekin ha-
rremanetan jarri, eta baiezkoa
lortutakoan partiturak txistu
doinuetarako moldatzea tokatzen zaie.
Emaizta baino ez da ikusten kontzer-
tu egunean, orain artekoa gorenari beti,
baina horren atzean lan eskerga dago,
hilabete luzeetako. Aurten ere, Ma-
dalen Aurreko Txistulari Kontzertua
izango da Madalen Jaiei atariko. Hu-
tsik egin gabe helduko da Udal Txis-
tulari Taldearen eskutik. Festak hasi
bezperan, astelehenean (hilaren 20an)
izango da kontzertu handia eta aurten-
go artista gonbidatuak Pantxoa Carrere
eta Peio Ospital izango dira, Pantxoa
eta Peio. Haiekin batera, Udal Txistu-
lari Taldea, berrasmatzeko eta txistua
ezohiko agertokietara eramateko abi-
lezia apartekoa erakutsi duena.

Ez dira, baina, bakarrik ariko Zumar-
diko agertokian, bertara bilduko den
jende oldeari ikuskizun ahaztezina es-
kaintzeko lanean lagun izango dituzte
beste asko: Erretereria-Oreretako eta
Euskal Herriko txistulariak; Jare An-
tzizar eta Julen Olaizola (bertsolariak);
Ereintza Dantza Taldea; Coco Dance;
Xanti eta Maialen (erraldoiak); Zaria
abesbatza; Aritz Lonbide (tronpeta),
Koldobika Salaberria (tronpa), Ricardo
Navas (tronpeta), Txomin Ganborena
(tronboia), Iñaki Albizu (tuba), Andoni
Garcia (gitarra), Jose Luis Alonso (ba-
xua), Iñaki Letamendia (bateria) eta
Imanol Elizasu (teklatura). Aurkezle la-
netan Garazi Urdanpilleta arituko da.



www.academiaizarra.com

Nafarroa Etorbidea, 59 behea
20.100 Erretereria
Tel. 943 517 340

Sinergiak batzen sobera ohitua dau-
de udalerriko eragileak, elkarlanerako
prest, jakin badakitelako emaitza askoz
ere ederragoa, askoz ere handiagoa dela
elkarrekin jardunda.

Emanaldia, 19:30ean hasiko da eta
bertan Pantxoa eta Peioren kanta eza-
gunak entzuteko eta gozatzeko aukera
izango da. *Azken dantza, Urtxintxak,
Itziarren semea, Txikia, Bake mina...*
bikoaren kantu gutxi batzuk baino ez
dira, eta horietako bateren bat entzu-
teko aukera izango da zalantzarik gabe
asteleheneko kontzertu handian. Kan-
tu aukeraketa asteleheneko kontzer-
tuan emango dute ezagutzera.

Pantxoa eta Peio Erretereria-Orere-
tan izatea «ohore handia» izango dela
esan du Iñaki Queralt Coira Herri Arte
Eskolako presidentek, «beraien betiko
abestiekin gozatzea berezia izango da».
Bakarlari gonbidatu berezia ere izango
da aurten, Ekain Cachenautek uztarizta-
rra. Cachenaute Euskal Herriko txistu
bakarlarien txapelduna izan da azken
hiru urteetan.

Kontzertuaren zuzendari artistiko
Xabier Vesga Elizalde azaldu du aza-
roan egin zutela lehen hartu-emanak
Pantxoa eta Peiorekin. Aurretik zerren-
da bat du osatua udalak: aniztasuna,
eta parekidetasunaren oreka manten-
tzea zein artisten beharretara egokitze-
ko aukera izatea dira irizpideak.

Garaiz ibiltzea garrantzitsua dela
zehaztu du Vesgak. «Abestien molda-
ketak egin behar izaten dira eta horrek
lana eskatzen du. Kasu honetan, kan-
tu bakarria moldatu behar izan dugu;
aurretik kontzertuak eginak zituzten

Donostian eta Elorrioren txistulariekin
eta moldaketak eginak zituzten».

Aipamen berezia kontzertu horre-
tan Indalezio Bizkarrondo *Bilintx*-i;
omenduko dute, bere heriotzaren
150. urteurrenean, bere kantu *Zaldi
zuriarena* joz.

Berritasunak aurtengo ekitaldian

Berritasunik ere bada; lehen aldiz ma-
dalenetako omenduari egingo zaion
aitortza ere ekitaldi horretan egingo
diote, Luis Mari Moreno Urretabizkaia
Pirata oholtzara igoko baita, herriko
kulturari, musikari eta jaietako bizi-
tzari urte luzez egindako ekarpena ai-
tortzeko. Orain arte kontzertu horren
aurretik egiten zitzaion omenduari
aitortza eta aurten, lehenengoz, biak
batera egingo dituzte, beraz, kontzertu
hasieran omenduko dute Pirata.

Ekitaldi horretan bertan banatuko
dituzte ere aurtengo Madalenetako
Kartel Lehiaketako sariak. Bertan ja-
soko dute aitortza Joseba Iñaki De la
Callek eta Laia Maturanak, aurtengo

kategoria orokorreko eta haurren kate-
goriako kartel irabazleen egileek.

Piratak Pantxoa eta Peio eta txistu-
lariekin batera joko duen galdetuta ez
dute aurrerabide handirik eman Que-
raltek eta Vesgak, «jakina, sorpresak
egon daitezke. Egokiena Zumardira
joan eta kontzertua entzun eta ikustea
da». Vesgak abisua, aintzat hartzekoa:
«Aurten kontzertua ordu erdi aurrera-
tu dugu omenduaren ekitaldia batera
egingo dugulako, eta beraz, 19:30ean
hasiko da».

Orain artekoen balorazio ezin ho-
bea egin dute biek. Fermin Muguru-
za, Eñaut Elorrieta, edota Alaitz eta
Maider aritu dira txistulariekin bate-
ra kontzertu horretan besteak beste,
«ikaragarria izan da emaitza guztie-
tan». Zalantzarik ez dute aurtengoa ere
aurrekoak bezain berezia izango dela.
«Herriar guztiak animatu nahi ditugu
parte hartzera, besteak bezala, Pantxoa
eta Peio artista gonbidatu izango ditu-
gun kontzertu hau ere errepikaezina
izango delako». ■

Madalenak badatoz!

SALSAMENDI

www.gestoriasalsamendi.com GESTORIA

AHOLKULARITZA FISKAL ETA LABORALA
TRAFIKOKO AGIRIEN KUDEAKETA - AUTONOMOAK - ESKRITURAK

Maria Lezo, 5 . Erretereria. Tel.: 943 52 43 02



MAITEXA

TABAKOAK-OPARIAK

Gora madalenak!



Bizente Elizegi, 3 . Erretereria . 943 51 21 10

Albistur Gora madalenak!!

Mantentze eta berritze-lanak

ALBISTUR ERAIKUNTZAK

Proiektu eta berrikuntza orokorrak · Arreta pertsonalizatua

BULEGOAK: Biteri kalea 3, behea · **SUKALDEEN ESPOSIZIOA:** Biteri kalea 2, behea
943 52 78 01 - 665 727 764 - www.albistur.es





Aiton-Etxe

EGUNEKO ZENTROA

ALDUNDIAREKIN HITZARTUTA
PLAZA PRIBATUAK ERE BADITUGU

943 49 21 46 - 688 68 60 42 - **OIARTZUN** - www.aitonetxe.com

Ayerdi Motor







ESPEZIALISTAK

**SALMENTA,
MEKANIKA ETA
KARROZERIA**

www.ayerdimotor.com

INSTALAZIOAK: Jaizkibel hiribidea, 1 - LEZO

Tel.: 943344525 -  602 22 76 84 - ayerdimotor@ayerdimotor.com








S.A.

Autocares

Egiburuberri pasealekua 25. ERRETERIA • info@autocaresdiez.net • Tel.: 943 28 84 16



EGITARAU OSOA HEMEN

labureus.oarsoagenda



Ikerne Zarate

MADALEN EGUNEAN, HAURRAK DANBOR JOKA

HILAK 22, 18:00ETAN. Madalen Egunaren zati handi bat, arratsaldekoa, Danborren Jaiarena edo haurren danborradarena izango da. Alabergako plazatik Erdigunearanzko bidea hartuko dute hainbat lagunartez osatutako segizioko kideek, baita haien senide eta hurbilekoek ere.



Urko Etxebeste

URDIN ARGIZ EGINGO DUTE MAGIA

HILAK 23, 17:00ETAN. Magia hutsa da Kuadrillen Eguna. Arratsaldeko poteoan ehunka elastiko urdin argidun errenteriar bilduko dira Erdigunea DJ Bullekin gurutatzeko. Hasieran, kuadrilla bakoitzak bere espazioari eutsiko dio; poteoak aurrera egin ahala, magia bidez den-denak batuko dira, 19:30ean Herriko Plazan argazki erraldoia atera arte.



Ikerne Zarate

OIARTZUNEN ERTZEAN, ETA BARRUAN

HILAK 24, 13:15EAN. Madalenetako klasiko da jada Panierreko kukaña. Itsasaldiak medio, aurtun eguerdian egingo da. Oiartzun ibaiaren ertzera zientoka izango dira bilduko direnak ea ikurrina nork hartu eta hura ertzera azkarrago eraman ikusteko. Herria hezur-mamitzen duen igerileku luzangaren freskotasuna ederki asko probatuko dute partaideek.



ONGI PASA MADALENAK!

Errenteriako Euskal Eskola Publikoak

EUSKAL
ESKOLA
PUBLIKOAZ
HARRO!

 **Bizarrain**
ikastola

HH-LH 943-34 16 45 BHI 943-89 94 13

 **Cristobal Gamon HLHI**
943-89 91 38

 **Cristobal Gamon BHI**
943-89 94 41

 **KOLDO MITXELENA**
Herri Ikastetxea
943-89 91 87

 **KOLDO MITXELENA BHI**
943-89 95 00

20

MADALEN AURREKO
XIX. TXISTULARI
KONTZERTUA
PANTXOA ETA PEIO
19:30
ZUMARDIA

23

ETSAIAK EROAK
22:00
LINO GUNEA
OIHAN VEGA
00:00
ZUMARDIA

21

BENGO
01:00
ZUMARDIA
ONKI XIN
01:30
PANIER GUNEA

24

SIWANABA DJ
22:30
GERNIKA PLAZA
ANARI
00:30
ZUMARDIA

22

HERENEGUN
23:15
ERRIOLA GUNEA
IRATZAR ERROMERIA
01:00
ZUMARDIA

25

BELAR HOSTOAK
19:00
XABIER OLASKOAGA PLAZA

Madalenak 2026

Musika festa
UZTAILAK 20 -25 DE JULIO



ERRETERIA
UDALAK



KULTURA
kreatiboa

Programazioa guztia / Toda la programación:
herribizia.errenteria.eus/madalenak